



TOLOSAKO  
UDALA

## GOBERNU BATZARRA

2019.02.04

**Alkatea:**  
**Olatz Peon Ormazabal**

**Bertaratutako zinegotziak:**  
**Patxi Amantegi Zubiria**  
**Nerea Letamendia Belloso**  
**Jokin Azkue Arrastoa**  
**Iñigo Alonso Sarasibar (5. puntura**  
**arte, hori barne)**

**Idazkaria:**  
**Begoña Garmendia Vazquez**

**Kontuhartzailea :**  
**Ainhoa Molinos Zubiaurre**

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hemeretziko otsailaren lauan, 08:00etan, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburua alkatea izan da, eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.

1. **Aurreko akta onartzea.**
2. **Onartzea Tolosako Komunikabideak S.L.-rekin 2017ko dirulaguntza jasotzeko sinatutako hitzarmena bertan behera uztea.**
3. **Onartzea Tolosako Gudari kalea berrurbanizatzeko proiektuko obren 5. ziurtagiria (FV1-1811-0058 Faktura eta FVI-1811-0057 faktura).**
4. **Onartzea Tolosako Erraldoi eta Buruhandien Konpartsari emandako dirulaguntzaren kitapena.**
5. **81/2018 eta 82/2018 faktura-zerrendak.**

### **1. AURREKO AKTA ONARTZEA.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2019ko urtarrilaren 28an egindako batzarreko aktak aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute akta.

### **2. ONARTZEA TOLOSAKO KOMUNIKABIDEAK S.L.-REKIN 2017KO DIRULAGUNTZA JASOTZEKO SINATUTAKO HITZARMENA BERTAN BEHERA UZTEA.**

28 Kanala Tolosaldeko euskarazko komunikabidea da. Telebista, irratia eta webgunea dira 28 Kanalaren euskarriak. Eduki guztiak euskara hutsean eskaintzen dira; telebistaren



TOLOSAKO  
UDALA

kasuan LTDan eta Euskalteleko zuntz bidez, eta 28irratia FM frekuentziako 106.7an. 28 Kanala Infosare Taldeko kide da, Goierri Telebista, Goierri Irratia, Erlo Telebista eta Erlo Irratiarekin batera. 28 Kanalak, euskarazko tokiko beste hainbat telebistekin batera, Tokiko elkartea osatzen du. Komunikabide hauek guztiak gertutasuna eta euskara dute ardatz. 28 Kanala Tokikom elkarteko kide ere bada.

Tolosaldeko udalen onespenearekin, 2006. urteko urriaren 2an hasi zen Tolosaldeko Telebistako emisioa; 28 Irratia, berriz, 2010. urteko ekainean. 28 Kanaleko estudioak Tolosako San Esteban auzoan kokatuta daude. Telebista LTD seinalearen bidez iristen da Aduna, Alegi, Alkiza, Altzo, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Tolosa, Villabona eta Zizurkil herrietara; eta kable bidez Euskadi osora. Irratia eskualde osora hedatzen da. Webgunearen bitartez seinaleak mundu osora eta euskarri guztietara zabaltzen dira.

Tolosako Udalak Tolosako Komunikabideak S.L.-rekin hiru urteko balioa zuen lankidetzaren hitzarmena sinatu zuen 2015eko apirilaren 1ean, Udalbatzak 2015eko otsailaren 24ko Osoko Bilkuran hartutako erabakiaren ondorioz.

Dirulaguntza emateko prozedurari helduz, Tolosako Udaleko Gobernu Batzordeari proposatu zitzaion, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza Batzordearen onespenearekin, aipatutako diru kopurua – 36.000,00 euro- 2017ko udal aurrekontuetako Euskara Zerbitzuko diru laguntzen 0900 481.01. 33510 partidan izendatzea Tolosako Komunikabideak S.L.-ri.

2017ko ekainaren 23an, Udalak 25.200 €, dirulaguntzaren % 75a, ordaindu zizkion Tolosako Komunikabideak S.L.ri eta falta zena, alegia, 10.800 €, zuriketa aurkeztu ondoren ordaindu behar zizkion.

Zuriketa ez dute behar bezala aurkeztu eta 2019ko urtarrilaren 24an, (914 erregistro zenbakia), idatzi bat aurkeztu dute 2017ko dirulaguntzari uko eginaz eta jasotakoa bueltatu dute.

Hori guztia ikusita kontuan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,



TOLOSAKO  
UDALA

## ERABAKI DU

**LEHENA.-** Onartzea Tolosako Komunikabideak S.L.-rekin sinatutako hitzarmena bertan behera uztea.

**BIGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea Tolosako Komunikabideak S.L.ri, Kontuhartzaitzari eta Hizkuntza Politika eta Hezkuntza Departamentuari.

### **3. ONARTZEA TOLOSAKO GUDARI KALEA BERRURBANIZATZEKO PROIEKTUKO OBREN 5. ZIURTAGIRIA (FV1-1811-0058 FAKTURA ETA FVI-1811-0057 FAKTURA).**

Earki Arkitektoak S.Coop. Peq. p., enpresak ondorengo txostena egin du 2019ko urtarrilaren 28an Tolosako Gudari kalea berrurbanizatzeko obrei buruz:

*“Tolosako Udalak Construcciones Campezo Obras y Servicios S.A., enpresari esleitu zion Tolosako Gudari kalea berrurbanizatzeko proiektuko obren kontratua, 647.662,54 € (BEZa barne) izan zelarik esleipenaren zenbatekoa. Kontratuaren kopuru orokor horretan, ondorengoak dira Udalari dagozkion atalak:*

- Argindarra
  - Printzipala.....29.278,28 €
  - BEZa.....0,00 €
  - GUZTIRA.....29.278,28 €
  
- Gainerako partidak
  - Printzipala.....399.759,31 €
  - BEZa.....83.949,46 €
  - GUZTIRA.....483.708,77 €

*Orain arte aurkeztu diren ziurtagiriak honakoak dira, ondorengoak direlarik zenbatekoak:*

*Ziurtagiri zenbakia.....Faktura zenbakia.....Zenbatekoa*



TOLOSAKO  
UDALA

1. ziurtagiria ( BEZik gabe).....	0,00 €
1. ziurtagiria (% 21eko BEZa).....FV1-1807-0014.....	5.559,05 €
2. ziurtagiria ( BEZik gabe).....	0,00 €
2. ziurtagiria (% 21eko BEZa).....FV1-1808-0054.....	7.675,94 €
3. ziurtagiria ( BEZik gabe).....FV1-1809-0065.....	5.546,27 €
3. ziurtagiria (% 21eko BEZa).....FV1-1809-0064.....	42.533,17 €
4. ziurtagiria ( BEZik gabe).....FV1-1810-0031.....	2.728,24 €
4. ziurtagiria (% 21eko BEZa).....FV1-1810-0030.....	70.417,24 €
GUZTIRA.....	134.459,91 €

Orain aurkezturiko ziurtagiria, obrako bosgarrena, honakoa da:

Ziurtagiri zenbakia.....	Faktura zenbakia.....	Zenbatekoa
5. ziurtagiria ( BEZik gabe).....FV1-1811-0058.....		20.153,02 €
5. ziurtagiria (% 21eko BEZa).....FV1-1811-0057.....		180.991,09 €
GUZTIRA.....		201.144,11 €

Kopuru horretan argindar sarearen berrikuntza sartuta dago, Tolargi enpresari dagokiona (FV1-1811-0058 faktura).

Ziurtagiria aztertu ondoren, **ontzat ematen da.**"



TOLOSAKO  
UDALA

Hori guztia kontuan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.-** Ontzat ematea Tolosako Gudari kalea berrurbanizatzeko obren 5. ziurtagiria, ondorengo kopuruekin:

5. ziurtagiria ( BEZik gabe).....	20.153,02 €
5. ziurtagiria (% 21eko BEZa barne).....	180.991,09 €
GUZTIRA.....	201.144,11 €

**BIGARRENA.-** Tolargi, S.A. enpresari argindarrari dagokion 20.153,02 €-koa gastua errekeritzea.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Hirigintza Departamentuari.

## **4. ONARTZEA TOLOSAKO ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KONPARTSARI EMANDAKO DIRULAGUNTZAREN KITAPENA.**

### Aurrekariak

Tolosako Gobernu Batzarrak, bi mila eta hemezortziko uztailaren hamaseian, 10.000 euroko dirulaguntza onartu zuen, Tolosako Erraldoi eta Buruhandien Konpartsak Japoniara egin behar zuen bidaiarako.

2018ko uztailaren 16an sinatu zuten hitzarmena Tolosako alkateak eta Konpartsaren ordezkari Lander Torresek, bete beharrekoen zehaztasunak ezarriz.



TOLOSAKO  
UDALA

Tolosako Udalak dirulaguntzaren % 75 aurreratu zion Konpartsari, 7.500 euro. Bigarren zatia, 2.500 eurokoa, berriz, ekimena amaitu ondoren zuriketa aurkeztu eta ordaintzeko konpromisoa hartu zuen Udalak.

2018ko abenduaren 4an aurkeztu du Tolosako Erraldoi eta Buruhandien Konpartsak zuriketa egiteko memoria eta balantzea, fakturen zerrenda eta fakturen kopiez gainera.

#### Azalpena

- 1) Aurkeztutako dokumentazioa gainbegiratu da eta beharrezko guztia aurkeztu dutela frogatu da.
- 2) Balantzea eta memoria bat datoz dirulaguntza proposamena egiteko orduan aurkeztu zuten egitasmoarekin.
- 3) Dirulaguntzaren helburuak guztiz bete dira aurkeztu duten dokumentazioan froga daitekeenez.

Hori guztia kontuan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Onartzea Tolosako Erraldoi eta Buruhandien Konpartsari Gobernu Batzordeak onartutako dirulaguntzaren % 25eko bigarren zatiaren ordainketa.

Partida 0800.481.01.33410

Kopurua        2.500 euro

**BIGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Kultura, Festak eta Gaztedia Departamentuari.

#### **5. 81/2018 ETA 82/2018 FAKTURA-ZERRENDAK.**

Kontuhartzaitzak **81/2018** faktura-zerrenda aurkeztu du. Kopuru osoa da **667,00 €**.



TOLOSAKO  
UDALA

Hortaz, zerrenda aztertirik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA**.- 81 /2018 faktura-zerrenda onartzea.

**BIGARRENA**.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

-----

Kontuhartzaitzak **82 /2018** faktura-zerrenda aurkeztu du. Kopuru osoa da **341.604,71 €**.

Hortaz, zerrenda aztertirik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA**.- 82/2018 faktura-zerrenda onartzea.

**BIGARRENA**.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

**Segidan, bilkuran eten egin da 09:30ean eta jarraitu du 11.45ean**



TOLOSAKO  
UDALA

**Gai zerrendatik aparte eta gaiaren premiatasuna dela eta, Gobernu Batzarrak aho batez onartu ondoren, honako gai hau aztertu da:**

**ONARTZEA 2018KO EKAINAREN 4AN GOBERNU BATZARRAK BEHIN BETIKO ONARTUTAKO TOLOSAKO "12.4 SAN FRANTZISKO 32-34-36 AZPIESPARRUKO EXEKUZIO UNITATEKO BIRPARTZELAZIO PROIEKTUKO AKATS MATERIAL BATEN ZUZENKETA EGITEA.**

**1. AURREKARIAK.**

- Tolosako "12.4 San Frantzisko 32-34-36 azpiesparruko exekuzio unitateko Kontzertazio Batzordeak", 2017ko urriaren 18an, hasierako onarpena eman zion unitateko birpartzelazio proiektuari.

Proiektua jendaurrean jarri zen 2017ko urriaren 26an Gipuzkoa Aldizkari Ofizialean eta egun bereko Noticias de Gipuzkoa egunkarian argitaratuta.

- Jendaurreko epean hiru alegazio sartu ziren Udal Erregistroan.

- 2018ko otsailaren 5eko dataz, Jose Angel Chapartegui Izaguirrek "12.4 San Frantzisko 32-34-36" Azpiesparruko Exekuzio Unitateko Kontzertazio Batzordearen izenean eta ordezkartzan, aurkeztutako alegazioei erantzuten zien idatzia aurkeztu zuen.

- 2018ko otsailaren 28an, berriz, Jose Angel Chapartegui Izaguirrek, "12.4 San Frantzisko 32-34-36" Azpiesparruko Exekuzio Unitateko Kontzertazio Batzordearen izenean, birpartzelazio proiektu zuzendua aurkeztu zuen bere behin betiko onarpenerako.

- 2018ko martxoaren 19ko Gobernu Batzarrak erabaki zuen ez onartzea "12.4 San Frantzisko 32-34-36" Azpiesparruko Exekuzio Unitateko Kontzertazio Batzordeak 2017ko urriaren 18an hasierako izaeraz onartutako birpartzelazio proiektua eta agindu zuen berau udal zerbitzuek ezarritako baldintzetara egokitzeko, birpartzelazio proiektua berriro ere jendaurrean jarri beharko zelarik.

- 2018ko apirilaren 5ean, Kontzertazio Batzordeak berriro ere hasierako izaeraz onartu zuen birpartzelazio proiektu zuzendua eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara eman zuen 2018ko apirilaren 13ko dataz, hilabeteko epean jendaurrean jarritz.





TOLOSAKO  
UDALA

- Jendaurrean egondako denboran ez da alegaziorik aurkeztu eta, ondorioz, Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak, ekainaren 30ekoak, 163.3.a artikuluan ezarritakoari jarraiki, Tolosako Udalak birpartzelazio proiektua behin betiko izaeraz onartu dezan eskaera aurkeztu du Jose Angel Chapartegui Izaguirrek 2018ko maiatzaren 22an.
- 2018ko maiatzaren 31n, Udaleko Hirigintza teknikariak aldeko txostena egin zuen.
- 2018ko ekainaren 4an, Gobernu Batzarrak behin betiko onespena eman zion (GAO 2018-06-20).
- 2018ko ekainaren 22an, Birpartzelazio Proiektua aurkeztu dute formatu digitalean.
- 2018ko irailaren 12an, Udaleko Hirigintza teknikariak txostena egin zuen.
- 2018ko irailaren 17an, 2018/1771 Dekretua eman zuen alkateak, Birpartzelazio Proiektuan jasotako hainbat baldintza betetzeko eskatuz.
- 2019ko urtarrilaren 16an, interesdunak Birpartzelazio Proiektuaren udal ziurtagiria eskatu du.
- 2019ko urtarrilaren 31n, interesatuak idatzia aurkeztu du, behin betiko onartutako Birpartzelazio Proiektuko akats material baten zuzenketa eskatuz.

## 2. TXOSTENA

Aurrekarietan adierazi bezala, 2018ko ekainaren 4an Gobernu Batzarrak behin betiko onespena eman zion "12.4 SAN FRANTZISKO 32-34-36" azpiesparruko exekuzio unitateko Kontzertazio Batzordearen Birpartzelazio Proiektuari.

Orain, ordea, 2019ko urtarrilaren 31n, Jose Angel Chapartegui Izaguirre jaunak, exekuzio unitate horretako Kontzertazio Batzordearen izenean, akats material baten zuzenketa eskatu du. Izan ere, sestra azpiko eraikigarritasunari dagokionez, kontraesan bat dago onartutako proiektuan: batetik, ondoriozko partzela eraikigarriaren balorazioa



TOLOSAKO  
UDALA

egiterakoan, sestra azpiko eraikigarritasuna 1.140 m<sup>2</sup>(t)-koa dela esaten da; bestetik, ondoriozko partzelaren deskribapenean (a.20.1/12.4 partzelan), sestra azpiko eraikigarritasuna 3.545 m<sup>2</sup>(t).koa dela zehazten da.

Honen aurrean, akats material baten zuzenketa eskatzen du interesdunak, sestra azpiko eraikigarritasuna 1.140 m<sup>2</sup>(t)-koa izan dadin 100. orria aldatzeko eskatuz.

39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, bere 109.2 artikuluan honakoa jasotzen du:

*“Artículo 109. Revocación de actos y rectificación de errores.*

*2. Las Administraciones Públicas podrán, asimismo, rectificar en cualquier momento, de oficio o a instancia de los interesados, los errores materiales, de hecho o aritméticos existentes en sus actos.”.*

Hori guztia kontuan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.-** 2018ko ekainaren 4an Gobernu Batzarrak behin betiko onartutako Tolosako “12.4 San Frantzisko 32-34-36 azpiesparruko exekuzio unitateko Birpartzelazio Proiektuko akats material baten zuzenketa egitea. Zehazki, onartutako Proiektuko 100. orria ordezkatzeari proposatzen da, sestra azpiko eraikigarritasunak 3.545 m<sup>2</sup>(t)-koa izan ordez 1.140 m<sup>2</sup>(t)-koa izan behar baitu.

**BIGARRENA.-** Ebazpen hau jakinaraztea Kontzertazio Batzordeari eta Hirigintza Departamentuari.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 12:00etan.**

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**